

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Osteguna, 2010eko azaroaren 18a. VIII. urtea. 2.125. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Ikasketa eta koordinazioa emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko

Azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Eguna dela eta hamaika ekitaldi antolatu ditu Tolosako Udaleko Berdintasun sailak

Pasa den urtean egin bezala gazteengan jarriko dute arreta berezia, izan ere «indarkeria sexista gure egitura sozialetan erabat errotuta» dago oraindik **02**



Jaialdiko antolatzaileek hitzordua euren arazoan berri emateko baliatuko dutela nabarmendu zuten. I. GARCIA

## Otaegi eta Mujika Aizkora Txapelketako igandeko finalean

Maila Nagusiko azken jardunaldia izango da igandean Asteasun; 20 euro ordaindu beharko dira 6 aizkolarien lanak ikusteko **04**

## Indurain, Lejarreta, Olano, Beloki... Urkamendin

Zizurkilgo elkarteak 25 urte egin ditu Tourreko lehen euskaldunak omentzen eta urteurrena ospatzeko larunbaterako antolatu duten jai egunean txirrindulari ospetsuak izango dira **03**

## Zeinu hizkuntzarekiko sentsibilizazioa film laburren eskutik

Gorren komunitateak zeinu hizkuntzan egindako Laburmetraien I. Jaialdia antolatu du; hamabost lanak larunbat honetan ikusi ahal izango dira Tolosako Leidor aretoan **06**



Azaroaren 30 arte %10eko deskontua iragarkia erakutsiaz

**%10 deskontua**

San frantzisko, 21 - Tolosa • tel.: 943 65 27 46

# Indarkeria sexistaren aurrean gazteengan jarriko du arreta Udalak

Emakumeen aurkako indarkeria kasuetan ikasketa, prebentzioa eta koordinazioa bultzatu nahi ditu Tolosako Udalak

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunarekin erakunde ugari egin dute bat

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Egun seinalatu ugari ditugu egutegian. Badira, ospakizunerako direnak, eta hauek noiz etorriko zain irrikaz egon ohi da jendea, festa egiteko aitzakia baitira. Badira, halaber, protestarako eta aldarrikapenerako direnak. Hauen kasuan, egutegitik kentzen ditugun ueña litzateke ospatzekoa. Hori gertatzen da azaroaren 25arekin. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egun izaten jarraitzen du 1981. urtetik. Garai hartatik lan handia egin da eta asko hobetu da egoera. Baina ez egutegitik kendu ahal izateko adina.

Bada, ohi bezala, gaiaren inguruan sentsibilizazioa bultzatzeko helburuz hamaika ekitaldi antolatuko dituzte erakundeek egun horren inguruan. Tolosako Udalaren kasuan, pasa den urtean egin bezala, gazteengan jarriko dute arreta berezia bultzatuko dituzten ekimenetan. Onintza Lasa Berdintasun zinegotziak adierazi

bezala, «indarkeria sexista gure egitura sozialetan erabat errotuta dago, indarkeria mota hau era leun batean barneratzen hasten da, eta horrela osatzen da emakumeen izaera, eta horregatik baimentzen da hauekiko indarkeria fisikoa». Indarkeria sinboliko hori ideia okerretan oinarritzen dela dio Lasak, baina, ideia horiek «oso zabaldua» daude eta «naturalizat» hartzen dira: «Esaterako, beldur izaten ikastea, babestua izan beharra sentitzea, lotsatua edo errudun sentitzea sexu-erasoa edo tratu txarrak jasatean eta nahiago izatea hori ukatu edo justifikatzea, gaia onartu eta kritikatu baino».

## Beldurra ukatzea

Oso garrantzitsua da Berdintasun zinegotziaren arabera herriko gazte eta nerabeekin lan egitea, «indarkeriaren formarik leun, naturalizatu eta sozialki onartuenak ezagutu dituzten eta horren aurrean hauskorra izan ez daitezten». Udaletik bultzatuko



Irene Larraza, Onintza Lasa, Jokin Bildarratz eta Josebe Iturrioz, herenegun eginiko aurkezpenean. IÑIGO TERRADILLOS

duten *Beldur Barik* kanpainen gazteak «agente aktibo» izatera animatu nahi dituzte, «emakumeenganako edozein indarkeria mota errefusatu eta horren aurka egin dezaten».

Bestalde, urtean 12 tratu txar kasu izaten dituzte, batez beste, Gizarte Zerbitzuetan. Horren aurrean, pertzepzioa, koordinazioa eta formazioa lantzea «ezinbestekoa» da Lasaren ustetan. «Indarkeria kasu baten aurrean gaudela ulertzea, kasu bat dugunean erakundeek elkarrekin era egokienan lan egitea eta sentsibilizazio formatzea, hain zuzen».

Dagoeneko urte bat igaro da TLSbat izenpean Berdintasun saila Gazteria edota Kultura bezalakoekin elkarlanean aritzea beharrezko ikusi zenetik. Josebe Iturrioz Berdintasun teknikariaren arabera, «aurrerapauso handi bat» izan da hori, «naturalta-

sun osoz berdintasunaren kultura bat lortzen ari garelako».

Halaber, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunarekin bat eginez urtetik urtera geroz eta erakunde eta elkarte gehiago dira ekimenak antolatu dituztenak, eta horien lana eskertu nahi izan du Iturriozek: «Mugarik Gabe elkartekoen zine zikloa, Titirijai baitako antzezlanak, ikastetxeek antolaturiko gazteen jaialdia, Beldur Barik Lehiaketa, Aranzadikoen emakumei buruzko hitzaldia, Jabekuntza Eskolako ikastaroak, Denboraren bankua, Bilgune Feministakoen ekimenak... Horietan parte hartzea, eta etxeetan Puntu Lila jartzera gonbidatu nahi ditugu herritar guztiak».

## Udalaren adierazpena

Herenegun eginiko ezohiko batzarrean aho batez onartutako

mozioaren arabera, Tolosako Udalak politika aktibo, integral eta koordinatua garatzeko konpromisoa hartzen du berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka.

## Urtean zehar

Horiek horrela, Udalak urtean zehar ekimenak bultzatuko ditu «emakume gazteen parte-hartze aktiboa baliatuz, eta beldurrari eta hauskortasunari aurre egiteko behar dituzten baliabideak jarriko ditu euren esku, euren jabe-kuntza ahalbidetuz». Era berean, Emakumeekiko Indarkeriaren Aurkako Protokoloaren bidez sortuko diren prozesuetan aktiboki laguntzeko konpromisoa hartu du Udalak, ikasketa, prebentzio, koordinazio eta interbentzio prozesuetan ahalik eta agente gehien inplika daitezten bultzatuz.

## ↓ Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Eguna

### EKITALDIK

■ **Batxixango.** Laskorain, Orixe eta Hirukide ikastetxeetako ikasleekin antolatua. Abenduaren 11n, Beotibarren, 23:00etan.  
 ■ **Beldur Barik lehiaketa.** Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako arteen lehiaketa. 500 euroko sari bat eta 250 euroko bi sari. Epea: azaroak 30. Oinarriak: [www.zazpitantriangulon.com](http://www.zazpitantriangulon.com); <http://berdintasunatolosakoudala.blogspot.com>.

■ **Gazteen jaialdia.** Laskorain, Orixe eta Hirukideko ikasleekin antolatua, abenduaren 17an, Leidorren, 19:00etan.  
 ■ **Mugarik Gabe zine zikloa.** Azaroaren 23an, 19:30ean, *La Causa de Kripan*, eta azaroaren 26an, 18:30ean, *Las Dignas y su historia*, Leidor aretoan.  
 ■ **Titirijai 2010.** Abenduaren 2an, 20:30ean, *Yoshitune y los mil cerezos en floremakumeek* eginiko antzezlanak, Topic-en.  
 ■ **Historia eta Oroimena.** Aza-

roaren 25ean *Emakumea gerra zibilean*, Lourdes Errastirekin, 19:30ean, udaletxean. Azaroaren 26an *Prohibido recordar* dokumentala, 19:30ean, Leidorren. Otsailaren 3an *De la milliana a la emakume: una vision de genero de la guerra civil en Euskadi* hitzaldia, Miren Llona-rekin, 19:30ean udaletxean.

■ **Jabekuntza Eskola.** Azaroaren 24an *Euskal Herriko Mugimendu Feministaren Historia*, 19:00etan, Kultur Etxean Miren Aranguren eta Edurne Epelderekin (Emagin eta Bilgune Feministako kideak). Azaroaren 20an rap tailerra (Furia), Kultur Etxean, 10:00etatik 14:00etara.  
 ■ **Denboraren bankua.** Abenduaren 19an, Elkartrukearen Merkatura eta Mundu Arteko Elkartrukea, Zerkausian.

**ZU zara berria**

euskarazko komunikabideak, elkartanean, berrituta, mugimenduan

ezagutu 15 egunez doan gure produktuek

**hitza**<sup>info</sup>

**berria**<sup>info</sup>

Egin ezazu eskaera  
 943-30 43 45 • [harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)  
 edo [webgunearen bidez](http://webgunearen.bidez)

[www.zuzaraberria.info](http://www.zuzaraberria.info) [berriketan.info](http://berriketan.info)

Eta **ongi etorri oparia** jasoko duzu

**Beti Alai**  
*jatetxea*

Garaian garaiko janariak  
 Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Larunbatean Lejarreta, Indurain, Olano, Garcia, Beloki, Zubeldia, Iturriagaetxeberria... Zizurkilen izango dira

#### **Eneritz Maiz** Zizurkil

Zizurkilgo Urkamendi elkarteak Frantziako Tourrean parte hartzen duten txirrindulari euskaldunen artean postu onena egiten duena omentzen hasi zela 25 urte betetzen dira aurten. Larunbatean, egun osoko festa eginez ospatuko dute eta txapela eman dieten izen handiko txirrindulariak ere bertan izango dira.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA Joxe Mari Usabiaga eta Julian Arrastoa elkarteak bazkideekin elkartu da urteurrenaren inguruko festaz hitz egiteko. Nolan hasi ziren galdetzean «oso txirrindularitza zalea naiz eta ia 37 urte daramatzat Tourra ikustera joaten. Baina Tourra ikustera joateaz aparte ez zen bestelako ezer egiten. Euskaldun txirrindulariek egiten zuten lana, hau da, irabazi, bukatu edota hamalau garren izan, ez zen ezer ere egiten», azaldu du Usabiagak. Hau horrela izanik, Urkamendi elkartearen lagun talde bat elkartu zen. «Tourrera joateak bakarrik duen meritua kontuan hartuta, zerbaitegin behar genuela ikusi genuen», gaineratu du. Omenaldi xume bat egitea erabaki zuten eta behin baino gehiagotan azpimarratu nahi izan dute ez diotela postuari garrantzirik ematen.

Omenaldi txiki modura, afari baten bueltan bildu izan dira. «Hasieran, lagun gutxiago elkartzen ginen» dio Arrastoa. «Txapela ematen diogu eta urteekin hobetzen joan gara. Lore sorta batekin batera agurra ere dantzatzeko zaie», gaineratu du. Ez da bazkideen kontua bakarrik, ome-



Aurten Juanma Garateri emango dioten Txapela dute esku artean Usabiaga eta Arrastoa. E. MAIZ

## Urkamendik 25 urte daramatza Tourreko lehen euskaldunak omentzen

naldira kanpotik ere etortzen da jendea. Urteekin muga jarri behar izan dute eta 100 lagun inguru elkartzen dira. Elkartearen guztiak sartzea ez baita posible. Afaloste- an, txapela eman eta argazkiak atera izan dituzte.

#### **Eguna txirrindulariaren esku**

Eguna ez da urtero berdina izaten. «Txirrindulari bakoitzari ematen diogu eguna jartzeko ardua. Bakoitzaren egutegiaren arabera jarri izan dugu», azaldu dute. Ostiraletan egin izan dute, baina Julian Arrastoa gogoratzen du «lehen urteetan aste barruan ere egin izan genuen».

Igandean, 25 urte beteko dituzte ekitaldi xume hau egiten hasi zirela eta urte batean ere hutsik egin gabe antolatuta dute. «Loteria izan dugu. Nahi gabe, izugarriko maila duten txirrindulariak tokatu zaizkigu. Eta guzkiekin oso gustura geratu izan gara», diote. Gustura hartu izan dute txirrindulariek Urkamendikoekin egindako gonbita. Inork ez du hutsik egin egunean bertan.

#### **Bederatzi Tour euskaldunek**

Lehena Marino Lejarreta izan zen eta beste lau urtez errepikatu ostean, Miguel Indurainek hartu zion lekukoa. Lehen euskalduna

izateaz gain, Frantziako Tourra irabaztea lortu zuen honek. «Induraini esaten genion ez geniola irabazi zuelako deitzen baizik eta Tourreko lehen euskalduna zelako» azpimarratzen dute. Atzetik etorri ziren besteak.

Nesken kasua ezberdina izan ohi dela kontatu digute, baina kontuan hartu izan dituzte eta Joane Somarriba eta Eneritz Iturriagaetxeberria omentu izan dituzte. Mutiletan bederatzita eta nesketan bi txirrindulari bakarrik pasa dira. «Urte batean ongi ibiltzen bada txirrindularia, hurrengo urteetan ere, orokorrean, maila txukuna erakutsi izan du

#### ↓ **Euskaldunak**

#### **TXAPELA JASO DUTENAK**

- **Marino Lejarreta.** 1986, 1987, 1988, 1989 eta 1990.
- **Migel Indurain.** 1991, 1992, 1993, 1994 eta 1995.
- **Abraham Olano.** 1996, 1997 eta 1999
- **Txente Garcia.** 1998
- **Joseba Beloki.** 2000, 2001 eta 2002
- **Joane Somarriba.** 2000, 2001 eta 2003.
- **Haimar Zubeldia.** 2003, 2005, 2006 eta 2007.
- **Iker Camaño.** 2004.
- **Eneritz Iturriagaetxeberria.** 2006, 2007 eta 2009.
- **Mikel Astarloza.** 2008 eta 2009.
- **Juanma Garate.** 2010.

eta horregatik errepikatu izan dira» azaldu digu Usabiagak.

Jende askok ez dakielako eta euskaldunek bederatzita Tour irabazi dituztela gogoratu nahi izan du Usabiagak «1937an Roger Lapébie baionarrak, bost Migel Indurainek eta hiru Joane Somarribak».

#### **Ospakizunak goizetik hasita**

Larunbat eguerdian herriko plazan elkartuko dira. Haurrek txirrindulariaren hurbildu beharko dute. Zirkuitu batean itzuli bat eman ostean, ginkana egingo dute. Ondoren, 100 lagun inguru elkartuko dira bazkaltzeko eta bertan izango dira baita 25 urte hauetan omentu dituzten euskal txirrindulariak ere, izan ere banatutako Txapela guztiak elkartzea dute helburu. Familiako argazkia ere aterako dute.

Urtero bezala, Xapre eta Totxo trikitilariak eta Lizaso, Telleria eta Peñagarikano bertsolariak ere ez dira faltako.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta **Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldecohitz.info](mailto:tolosaldean@tolosaldecohitz.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA**  
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko gutxiak egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

# 26. Maila Nagusiko Euskadiko Aizkora Txapelketako finala igandean

Asteasuko pilotalekuan 12:30etik aurrera izango da. Sei aizkolari ariko dira eta sarrera 20 euro ordaindu beharko da

**Eneritz Maiz** Asteasu

Atzo aurkeztu zuten Asteasuko udaletxean igandean jokatu den Maila Nagusiko Euskadiko Aizkora Txapelketako finala. Asteasuko pilotalekuan 12:30ean izango da eta aurtengoa jokatzeko den 26. edizioa izango da. Sei aizkolari lehiatuko dira nor baino nor. Floren Nazabal, Iñaki Azurmendi, Joxe Mari Olasagasti, Juan Jose Lopez, Joseba Otaegi eta Jexux Mari Mujika dira sei aizkolariak. Azken biak, eskualdekoak ditugu.

Euskadiko eta Gipuzkoako Herri Kirol Federazioa da antolatzailea. Baina zeresan handia du herri kirol munduan elkartzen den herriko taldeak. Hauek, 500 ikusle sartzeko moduan prestatu dute pilotalekua. Aparkatzeko ere ez da arazorik egongo. Eta nola ez, Asteasuko Udalaren laguntza ere izan dute.



Antolatzaileekin batera, Otaegi, Azurmendi eta Larretxea aizkolariak izan ziren aurkezpenean. E. MAIZ

## Lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko

Aurtengo kanporaketa Berrobin jokatu zen eta bertan sailkatu ziren igandean jokatu den finaleko sei aizkolariak.

Lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko moztu beharko dituzte. Sei aizkolariren artean lehia estua egongo dela adierazi dute. Sarrera 20 euro ordaindu beharko da eta horien artean, antolatzaileek lau bazkari zozketatuko dituzte.

## ↓ Bi nafar eta lau gipuzkoar, finalean

### SEI AIZKOLARIAK

- **Joseba Otaegi.** 27 urte, Zizurkil. Bigarren urtea du maila nagusian.
- **Jexux Mari Mujika.** 33 urte, Ibarra. Hirugarren urtez ariko da maila nagusian.
- **Floren Nazabal.** 41 urte, Etxarri Aranatz. Hemeretzigarren fi-

nala jokatu du igande honetan.

- **Iñaki Azurmendi.** 38 urte, Arriaran, Beasain. Zortzigarren finala jokatu du.
- **Joxe Mari Olasagasti.** 52 urte, Igeldo, Donostia. Hamabost urtetik gorako jarduna finaletan.
- **Juan Jose Lopez.** 41 urte, Lezaun. Laugarren finala jokatu du igandean.

## Jesusen Bihotza Ikastolari Zilarrezko Q saria aitortu diote

Euskalit Erakundeak kalitatezko kudeaketa sisteman egindako lanagatik eman dio Zilarrezko Q saria

**Erredakzioa** Villabona

Euskalit erakundeak Zilarrezko Q saria aitortu dio Jesusen Bihotza Ikastolari, Kontxi Ormazabal Jesusen Bihotza Ikastolako Zuzendariak adierazi duenez. «Sari hau, erabateko Kalitatezko Kudeaketa Sisteman (EKKS/EFQM) egindako lanaren errekonozimendu modura banatzen dute. Duela 6 urte hasitako ibilbidea bere fruituak ematen hasia da dagoeneko. 2008 urtean Kalitatearekiko *Konpromiso diploma* jaso genuen eta 2010. urtean, berriz, Zilarrezko Q-».

Erniobeia bailaran lehenengo enpresa da sari hau jaso duena. Eta Kontxi Ormazabal zuzendariak berri honen aurrean, «zorionik beroena» eman nahi izan die «ekimenean parte hartu duten guzteei; bai guraso eta ikasleei, baita irakasle eta langileei ere eta, nola ez, lan sistematika ezartzen eta gestionatzen hainbeste lana egin duen EKKS taldeari eta Zuzendaritza Taldeari».

## → Laburrak

### Elkarteko bazkarirako izen ematea hilaren 26a arte

**ANOETA** > Elkarteko bazkaria hilaren 28an Zuloaga Txiki jate-txean izango da. Lehenengo, 12:30ean Meza Nagusia izango dute. Bi hizkuntzetan izango da elkarteko hildako bazkideen aldeko meza. Ondoren bazkaltzera joango dira. Izena emateko epea hilaren 26ean bukatuko da.

### Amasako XVIII. Mendiatioia igandean

**AMASA** > Hilaren 21ean izango da Amasako urteroko egiten den Mendiatioia. Lasterketari hasiera 11:00etan emango zaio eta aurretik, izena egunean bertan Uxo Toki Elkartearen eman beharko da. Doan izango da. Bukatu ostean, zozketa mundiala izango da. Amasako Jai Batzordeak antolatzen du Villabonako Udalaren laguntzarekin.

## Helduentzat eta umeentzat

Abenduak 24 arte egiten diren erosketengatik 3 zozketatan parte hartuko duzu:

- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera


Errementari Kalea, z/g  
TOLOSA

Tel.: 943 67 16 30

## Irudia > Larraul

### BI KILOKO ONDDOA

Urte sasoi honetan jendek askok egin ohi duen bezala, saskia hartu eta mendira joan zen onddo bila Ramon Beloki. Asko esku hutsik bueltatzen badira ere, Belokik, bi kiloko onddo zuriarekin egin zuen topo Larraulgo lurretan. HITZA



## LEIHO ISOLATZAILEAK



- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC-EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39



## Baltistan gertuago

Ibon Azpilikuetak argazkitan jaso ditu Pakistango Baltistan eskualdera egindako bidaia; Jubilatuen tabernan daude ikusgai

Imanol Garcia Alegia

Ibon Azpilikueta alegiarrak bere herriko Jubilatuen tabernan argazki erakusketa jarri du ikusgai hil honen bukaera arte. Bertan Pakistango Baltistan eskualdean ateratako argazkiak bildu ditu. Azpilikueta Olatz Irazustabarrena bere bikotearekin joan zen bertara. Irazustabarrena Felix Baltistan Fundazioren kidea da eta

beste zenbait kidearekin batera lan batzuk burutzera joan ziren. Hain zuzen, Irazustabarrena osasun taldean dago eta zonaldea ezagutzera joan ziren, osasunarekin zerikusia duten proiektu batzuk bultzatzeko.

Azpilikuetak bidaia horretan bizitakoa laburbildu du argazkitan, Baltistango paisaiak eta bertako bizimodua erakutsiz. Lurralde hartan emakumeak bizi duen

egoera nabarmetzen du Azpilikuetak: «Emakumeak lanean ikusten dituzu uneoro: zelaietan, etxeko ardura guztiak eramaten, haurren heziketa... Gizona normalean denbora pasa egoten da. Gero lan pisuak egingo dituzte, baina eguneroko lanetan ez dituzu ikusten». Bertako paisaia «ikusgarriak» ere azpimarratzen ditu alegiarrak.

Felix Baltistan fundazioak ere bere presentzia izango du Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan, hitzaldi bat eta erakusketa baten bitartez.

● Azpilikuetaeren erakusketaren bideoa: [alegialdea.hitza.info](http://alegialdea.hitza.info)

## Palestina hizpide, Joxe Manuel Oiartzabal eta Txente Rekondorekin

Hitzaldia Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan egingo da gaur eta 19:30ean hasiko da Kultur Etxean

Erredakzioa Alegia

Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan gaur Palestinari buruzko hitzaldia izango da Kultur Etxean, 19:30ean. Bertan izango dira hizlari irailean Palestinan izan zen Joxe Manuel Oiartzabal

zinegotzia eta Txente Rekondo nazioarteko politikan aditua.

Oiartzabal Alegiako Udalaren ordezkarri bezala egin zuen bidaia Biladi Hadi brigadako kideekin batera eta Alain errefuxiatu eremuaren arteko senidetze ekitaldia burutu zuen.

Igandean, 'Prest gaude'

Lakrikun taldeak *Prest gaude* lana taularatuko du igandean, 19:30ean, Kultur eta Kirol etxean. Sarrerak salgai daude dagoeneko Kultur eta Kirol Etxean bertan hiru eurotan.



Derghan Esnael eta Joxe Manuel Oiartzabal senidetze ekitaldian. HITZA

### → Laburrak

#### Ezke abertzaleak batzarra egingo du, gaur

**AMEZKETA** › Ezker abertzaleak batzarra egingo du gaur, 20:00etan, balioanitzeko gelan. Bileran jorratuko den gaia 2011ko hauteskundeak izango da.

#### Gaztaina jatea antolatu du Ugarteko elkarteak

**AMEZKETA** › Aurreko urteetako ohiturari jarraituz, aurten ere gaztaina jatea antolatu dute Ugarteko elkarteak. Larunbatean, 20:30ean, egingo dute. Aurrez izena eman behar da Goikoetxea jatetxean (943 65 33 17) edo elkartearen jarritako paperean. Gaztainen aurretik saiheskia ere izango da.

## GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN ETORKIZUNEN EREDU BERRIA



MAITE ETZANIZ  
Diputada Foral de Política Social

Gizarte zerbitzuen eskubide subjektibo gisa onartuak izan dira, pertsona guztientzako eskubideak dira, pertsona guztiek beren bizitzaren egoera zein une desberdinetan erabili ditzaketenak.

Ongizate ekonomikoari begiratu gero, gizarte kohesio handia dago Gipuzkoan. Eta hemendik aurrera ere halaxe izan behar du.

Krisi ekonomikoak ezin ditu gizarte zerbitzuen murriztu eta zalantzan jarri, hezkuntza eta osasuna zalantzan jartzen ez dituen bezalaxe, hirurak baitira ongizatearen funtsezko zutabe.

Gizarte zerbitzuetan ez dago bezerorik, pertsonak batak. Beraz, pertsonen beharretara egokitu eta bere inguru hurbilean behar dituzten zerbitzuen eskaini behar dizkiagu.

Gure departamentuak eredu berri bat eraki du, eragile politiko eta sozial guztien artean adostasun maila handia bildu duena, eta dagoeneko erabiltzen hasita gaudena.

Gipuzkoa, gizarte zerbitzuen iraukotasuna bermatu behar duen gizarte da.



Julian Rodriguez, Alvaro Ortega, Jokin Bildarratz eta Alberto Etxeberria atzoko prentsaurrekoan. ASIER IMAZ

## Zeinu hizkuntzan egindako Laburmetraien I. Jaialdia egingo dute Leidorren

Gorren komunitateak zinemara joatean edo telebista aurrean dituen arazoei buruz sensibiltzatu nahi du

**Imanol Garcia** Tolosa

Zeinu hizkuntzan egindako Nazioarteko I. Laburmetrai Jaialdia aurkeztu zuten atzo Tolosako udaletxean. Bertan izan ziren Julian Rodriguez Jaialdiaren antolatzailea, Alberto Etxeberria Gaianditzen elkartearen lehendakaria, Alvaro Ortega Euskal Gorrak federazioko lehendakaria eta Jokin Bildarratz Tolosako alkatea. Film laburrez gozatzeaz gain, gorren komunitateak zinemara joatean edo telebista aurrean dituzten arazoei buruz sensibiltzatea da Jaialdiaren helburua.

Jaialdia etzi egun osoan zehar izango da eta bertan zeinuen hizkuntzan egindako hamabost film labur ikusi ahaliko dira. Gehienek azpituak dituzte eta, beraz, zeinu hizkuntza ez dakitenez ere ulertu ahaliko dituzte. Jaialdiaren amaieran sari banaketa egingo da. Espainiako hainbat lekutan, Herrialde Katalanetan, Italian eta Ingalaterran egindako laburmetraiak izango dira ikusgai.

Julian Rodriguezek azaldu zenez, garrantzi handia du Jaialdiak: «Hainbat lekuetako pertsonak elkartuko gara, bai hemengoak, bai Espainiakoak, eta agian beste herrialde batzuetakoak eta

asmoa da zeinu hizkuntzarekiko sensibiltzazioa egitea zinemaren bitartez». Orain dela bi urte saiatzen ari dira Jaialdia antolatzen eta Rodriguezek nabarmentzen duenez, «Euskal Herrian zein Espainia mailan egiten den lehena da».

Jaialdiaren arduradunak gaineratzen duenez, «helburu nagusia ez da bakarrik pertsona gorrek zinemaz gozatzea. Jaialdiaren jakinarazi nahi dugu ere pertsona gorrek ditugun arazoak zinemara joaten garenean, hau da, ez daudela azpituak, edo telebista oraindik ez dagoela moldatuta guretzako».

Beste lekuetako pertsonak etortzea «arrakasta handia» izango dela dio Rodriguezek («eta horrek esan nahiko du urtero jaialdi hau antolatzen aritu gaitezkeela. Garbi dago jarraituko dugula lanean gorren komunitateak bere bizi kalitatea handitu dezan».

### Zeinu hizkuntzaren ofizialtasuna

Alvaro Ortega gaineratu zenez, «guk nahi duguna zeinuen hizkuntza ofizial bezala onartzea da. Gorren komunitateak erabiltzen dute batez ere. Komunitate txikia da eta esan daiteke hizkuntza gutxi dela. Ofizialtasuna izateko borrokan air gara eta jarraituko dugu horretan». Rodriguezek lana goraipatu zuen: «Balio handia du orain arte egin duen lan guztia. Jaialdi honekin erakutsi nahi duguna da zeinu hizkuntzak batez ere guretzat duen ga-

### ↓ Egitaraua

#### AZAROAK 19, OSTIRALA

■ **22:00.** Tolosako Izaskun elkartearen egingo den afaria Laburmetrai Jaialdiko parte-hartzaileen eta antolatzaileen topagune izango da.

#### AZAROAK 20, LARUNBATA

■ **11:00-14:00 eta 16:00-20:00.** Laburmetrai Jaialdiko filmak emango dira Leidor aretoan eta ondoren sari banaketa egingo da.

■ **21:00.** Afaria sagardotegi batean.

rrantzia. Horrez gain euskal kulturaren arlo ezberdinak bultzatu nahi ditugu ere». Ortega Jaialdia arrakastatsua izatea espero du eta «guretzat pauso garrantzitsua izatea».

Jokin Bildarratzek Jaialdia antolatzeke lana ere goraipatu zuen. «Honen atzean dagoena da gorren eskubideak bermatuta izatea komunikazioaren aldetik», azaldu zuen. «Azken finean gizarte honetan komunikaziorik ez badago ez daude gure eskubide guztiak errespetatuta».

Ildo horretatik zeinuen hizkuntza ofiziala egitearen alde agertzen. Bestalde, Jaialdia Tolosan antolatzea eskertu zuen, «horrek laguntzen duelako tolosarrak gaitzen inguruan sentikorragoak izaten».

## Irudia > Bedaio



## MUSEAN TORTILLA ARTEAN

Bedaio Artubi elkartearen Mus Txapelketa, tortilla patata lehiaketa eta gaztaina jatea egin zuten. Mus Txapelketan 10 bikote aurkeztu ziren eta Zugastibarreneko Miel eta Alaitz atera ziren garaile. Ondoren patata tortilla lehiaketan haur, gazte eta helduek izan zuten beren sukaldatze trebeziak erakusteko aukera, eta guztietatik Bedaio Bitarteko Ana Jauregi, Aitor eta Igor bere bi semeekin izan ziren garaileak. HITZA

## Gaur hasi eta igandera arte, hainbat ekitaldi Kultur Elejiran

Ipuin kontalaria, hitzaldia, Tor magoa, babarrun eta gaztaina jatea eta antzezlanak izango dituzte

**Erredakzioa** Baliarrain

Baliarrainen ekin diote Kultur Elejirari, iragan igandean egin baitzuten Jubilatuen Eguna. Gaur jarraituko dute ekitaldiekin haurrei zuzendutako ipuin kontaketarekin. Haurrek eta gaztetxoek Tor magoaren ikuskizuna izango dute larunbatean.

Helduei zuzenduta hitzaldia izango da homeopatia eta naturopatiari buruz eta *Gezurrezko printzea* antzezlan. Guztiek bat egingo dute igandeko bazkarian.

### ↓ Egitaraua

#### AZAROAK 18, OSTEGUNA

■ **18:15.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria.

#### AZAROAK 20, LARUNBATA

■ **16:00.** Homeopatia eta naturopatiari buruzko hitzaldia.  
■ **17:30.** Tor magoaren ikuskizuna haur eta gaztetxoentzako.

#### AZAROAK 21, IGANDEA

■ **14:00.** Arkaitz elkarteak antolatuta, babarrun eta gaztaina jatea.  
■ **18:00.** Txirene antzerkia taldearen *Gezurrezko printzea* antzezlan Kultur Etxean.

# Antzerkiak eta zinema euskaraz, Kultur Elejiran

Euskara zerbitzuak antolatuta, bertako artisten hainbat emanaldi izango dira datozen asteetan

**Erredakzioa** Leitza

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano euskara zerbitzuak zenbait emanaldi antolatu ditu datozen asteetarako. Hauek Kultur Elejiraren baitan daude sartuta.

UEMAk Euskal Herri osoan antolatzen duen kultur zirkuitua da Kultur Elejira. Hau UEMA osatzen duten udalerrietan egiten da, eta herri horietako artistak, hizlariak, antzerki taldeak eta bestelako kultur emanaldiak eta ikuskizunak bultzatzea du helburu.

## Leitzako antzerki talde baten saioak Kultur Elejiran

Leitzako Xagu antzerki taldeak ere Kultur Elejiran hartu du parte, baina bere emanaldia ez zen gurean izan, Goizueta baizik. Duela 12 urte Leitzan jaiotako taldeak *Agur*, *Manhattan* lana aurkeztu zuen Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako Gazteen Topaketan baitan.

## Kultur Elejiratik at, beste hainbat ekitaldi ere bai

Nafarroari eskainitako ekitaldiak izango dira egun hauetan



Ekitaldien artean, Zurrumuru taldearen emanaldia izango da. HITZA

## ↓ Kultur Elejira

### LEITZA

■ **Azaroak 24.** Monda eta Liron-da taldearen *Baietz lortu* emanaldia izango da Erleta eskolan, 11:30ean.

■ **Azaroak 25.** Patziku Perurenaren *Goizuetan bada gizon bat* liburuaren aurkezpena izango da libururtegiaren, 19:30ean.

■ **Azaroak 28.** Zinema euskaraz, 17:00etatik aurrera. Euskarabideak antolatutako zikloaren barruan *Ponyo amildegian* lana

Leitzan. Alde batetik, Nafarroa euskal estatua izeneko erakusketak ikusteko aukera izango da udal-letzeko Batzar Aretoan igandetik abenduaren 5era bitartean.

Erakusketaz gain, azaroaren 29an honen aurkezpena egingo dute eta *Gipuzkoaren sorrera* izeneko bideo emanaldia ere izango

ikusteko aukera izango da zinemaman.

### ARESO

■ **Abenduak 3.** Zurrumuru taldearen *Pantxika eta Txinparta*, ederra zalaparta lana ikusgai 17:00etan, eskolan.

■ **Abenduak 8.** Zinema eskuraz, eskolan, 18:00etatik aurrera. Euskarabideak antolatutako zikloaren barruan *Ponyo amildegian* lana ikusteko aukera .

da. Hau 19:00etan izango da, Angel Rekalderen eskutik. Abenduaren 1ean, berriz, 19:00etan, *Nafarroaren independentziaren bideragarritasuna* solasaldia eskainiko du Oskar Aranzabalek, 19:00etan. Ekitaldi hauek guztiak, erakusketarekin batera, udaletxean izango dira.

# Garagardoa, pintxoak eta musika etzi, Torrean



Garagardo Pesta Nat eta Wats-en kontzertuarekin amaituko dute. HITZA

Garagardo Pesta ospatuko dute larunbatean; bihar da bazkarirako txartelak erosteko azken eguna

Zortzi garagardo ezberdin egongo dira dastatzeko, eta jateko berriz, saltxitxak patata purearekin, zeri saiheski errea letxugarekin, limoi eta kaba sorbetea, kafea eta kopa.

## Arratsaldean, festari jarraipena

Bazkaldu eta gero, oraindik ere gosez geratu direnentzat, nahiz, hara joaterik izan ez dutenentzat, iluntzean pintxoak izango dira. Saltxitxa eta hirugiharre mokadutxoak jarriko dituzte 20:00etatik aurrera Torrean bertan.

Garagardo Pestari amaiera kontzertu batekin emango diote. 22:00etan eszenatoki gainera igoko dira Nat & Wats izeneko taldekoak.

Hauen saio akustikoa eta rock kontzertuarekin gozatzeko aukera izango da.

**Erredakzioa** Leitza

Torra elkarrekin beste behin ere Garagardo Pesta antolatu du. Aurtengoa zortzigarrena izango da, eta gainera, berrikuntzekin dator. Izan ere, etzirako prestatutako festa honetan, afaria beharreen, bazkaria egingo dute. Ordu bietan hasiko da festa, eta bertan, nahi adina garagardo, saltxitxa eta saiheski izango da. Bazkarirako txartelak jada salgai daude, eta hauek, 26 eurotan eskuratu daitezke, bihar bitartean, Torrean bertan.

## → Laburrak

### Literatura Lehiaketako sari banaketa, gaur

**LEITZA** › Kultura taldeak antolatutako Literatura Lehiaketako sariak banatuko dituzte gaur. Ekitaldia 20:00etan izango da libururtegiaren.

### 'Oteiza ezberdin gizartea' antzerkia bihar Urepelen

**BERASTEGI** › Urepel elkarrekin antolatuta, biltokian, *Oteiza ezberdin gizartea* antzezilana izango da ikusgai bihar. Aldatzen Laguntzen antzerki taldearen emanaldia 22:00etan izango da. Oteiza eta bere argiketariaren arteko harremana ikusi daiteke antzezilanean.

# Martxora arte itxaron behar Nitro katean pilota partidak ikusteko

Aro digitalerako pausoa ematean telebista kate batzuk ezin ikusian geratu dira herrian, eta horrek kexak sortu ditu

**Erredakzioa** Leitza

Sistema analogikoa alde batera utzi, eta LTDa indarrean jarri zenetik, Leitzan arazo ugari dituzte zenbait kate ikusteko. Honek, herriar askoren kexak bultzatu ditu eta horiek ugaritu egin dira Nitro izeneko katea eskuzko pilota partidak eskaintzen hasi denetik. Izan ere, hauek ezin dituzte ikusi.

Egoera honen aurrean, herritarren kezka Nafarroako Gobernu-

ko Berrikuntza Sailera igorri du. Hala, azken honek jakitera eman duenez, martxoaren 1etik aurrera hartu ahal izango dira kate horiek. Baina horretarako, Baztarran kokatuta dagoen antenan zenbait aldaketa egin beharko dituzte.

Egoerari irtenbidea aurkitu artean, aurreko asteetan egin duten

bezala, inguruko herrietara jo behar dute leitzarrek, beraien herrikeria diren pilotarien norgehiagokak ikusteko, eta aldi berean animatzeko.

Baina, telebistarekin dituzten arazoak ez dira hor geratzen, lau euskal kate publikoetatik bi besterik ez baitituzte ikusten, ETB 1 eta ETB 2.


## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Baserría edo borda.** Baserría edo borda xume bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 91 10.

### GALDUTAKOAK

■ **Berokia.** Plumifero beltza, Tolosa inguruan galdu zen duela bi aste. Topatu duenak, deitu dezala telefono zenbaki honetara: 635 7 13 95.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



13°  
7°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	12°
HOTZENA	7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Anoeta.** Iturtzulon Loatzo Musika Eskolako lokal berriaren inaugurazioa, 17:30ean, Kultur eta Kirol Astearen barruan.
- **Baliarrain.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, 18:15ean.

### HITZALDIAK

- **Alegia.** Palestinari buruzko hitzaldia Jose Manuel Oartzabal zinegotzia eta Txenpe Rekondo nazioarteko politikan adituarekin, 19:30ean Kultur Etxean.
- **Tolosa.** *El humor y la risa en la vida cotidiana* hitzaldia, 19:00etan, Kultur Etxean.

### IKUS-ENTZUNEZKOAK

- **Tolosa.** Edurne Pasaban eta Asier Izagirrerekin bideo emanaldia, 20:00etan hasita, Oargi elkartearen Ondoren mokadutxo 943 67 56 12 zenbakian, [oargielkarte@gmail.com](mailto:oargielkarte@gmail.com)-en edo Oargin bertan izena ematen dutenentzat, 10 euroren truke.

### ZINEMA

- **Tolosa.** Leidorren, zine forumean, 19:15ean eta 21:45ean, *Concursante* filma.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.


# Oinkariren ibilbidea errepasatuz

Dantza taldetik pasa diren hiru belaunaldien argazkiak bildu dituzte erakusketa batean Aljibe aretoan

### Erredakzioa Villabona

Oinkari dantza taldean 35 urteak ospatzeko ekitaldi ugari prestatu dituzte datozen egunetarako. Horietan lehena Aljibe aretoan ikusgai dagoen erakusketa da. Bertan Oinkariko hiru belaunaldien argazki zahar eta berriak bildu dituzte eta igandera bitarte ikusi ahal izango da 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara.

Bihar, berriz, 20:30etik aurrera Iñar eta Leireren Kantaldia izango da Gurea zineman doan. Etzi dantzaldia izango da Gurean Asturiasko Lugones herriko La Sidrina dantza taldearen eskutik. Ikuskizun hau ere doanekoa izango da. Bukatzeko igandean, hilak 21, *Dantza zak plazan* ikuskizun berria eskainiko dute 12:00etan Malkar plazan. Dantzari eta dantzari ohien bazkaria ere egingo dute igandean.



Erakusketa Aljibearen ikusi daiteke igandera arte. A. IMAZ

## Agurak

agurak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurak

**URREA  
EROSTEN  
DUT**

**Momentuko ordainketa eskura**

**Aldatu ezazu urrea euroen truke**

**Edozein eskaintza hobetzen dugu**

**TASAZIORIK ONENA !!**

**Rondilla kalea 25, behea**